GRAMMAR APPENDIX

UNIT 1 *People*

PRESENT SIMPLE

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **work**	I / You **do not** (**don't**) **work**	**Do** I / you **work**?
He / She / It **works**	He / She / It **does not** (**doesn't**) **work**	**Does** he / she / it **work**?
We / You / They **work**	We / You / They **do not** (**don't**) **work**	**Do** we / you / they **work**?

Uses	Examples	Adverbs of frequency / Time expressions
A regular habit or routine	*My sister **works** on Sundays.*	always, usually, generally, regularly, occasionally, frequently, often, sometimes, rarely, seldom, never at 1 o'clock, at night, in the morning, on Fridays, every week, once a month, how often ...?
A general truth or scientific fact	*London **is** a multicultural city.*	
Stative verbs	*I **think** she is attractive.*	

Egitura

Baiezkoa: aditzoinaren forma du (hots, **to** gabeko infinitiboa), 3. pertsona singularrean izan ezik, hau **s** edo **es** batez bukatzen baita.

3. pertsona singularra zuzen osatzeko, ondorengo ortografia-arauak jarraitu behar dira:

- **O**, **ss**, **sh**, **ch** edo **x** batez bukatzen direnek, **es** hartzen dute: *do - do**es***, *miss - miss**es***, *wish - wish**es***, *touch - touch**es***, *fix - fix**es***.
- **Bokala** + **y** bukaera dutenek **s** hartzen dute: *say - say**s***.
- **Kontsonantea** + **y** bukaera dutenek, **y** hori **i** batez ordeztuko dute eta gero **es** hartuko dute: *try - tr**ies***.

Ezezkoa: aditzoinaren aurrean **do not** (**don't**) edo, 3. pertsona singularra denean, **does not** (**doesn't**) jarriz osatzen da.

Galderazkoa: do ala **does** subjektuaren eta aditzaren aurrera mugituko da. Aditza **to do** denean, aditz laguntzailea eta nagusia izango da aldi berean.

Gogoan izan **have got**, **to be** eta aditz modalek ez dutela ezezkoetan eta galderetan **do** / **does** laguntzailearen beharrik.

Erabilerak

- Ohikoak edo egunerokoak diren ekintzez aritzeko.
- Gertaera orokorrak eta egia zientifikoak adierazteko.
- *Stative verbs* deituekin erabiltzeko (ikus hurrengo orria).
- Ordutegi eta egitarauak adierazteko.
  *The train **leaves** at 4 o'clock.* (Trena 4etan ateratzen da.)

Maiztasun-adberbioak aditzaren aurrean kokatzen dira, baina aditza **to be** bada, atzean jartzen dira.

*Ian **never wears** trainers.*
(Ianek inoiz ez ditu kiroletarako oinetakoak janzten.)
*Paul **is always** nice.* (Paul beti da atsegina.)

Kontrara, maiztasun-esamoldeak esaldiaren hasieran edo bukaeran doaz.

*James **runs every day**.* (Jamesek egunero egiten du korrika.)

How often ...? galdetzaileaz gauza bat zenbatero egiten den galdetuko dugu.

***How often** do you read?* (Zenbatero irakurtzen duzu?)

PRESENT CONTINUOUS

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I **am singing**	I **am** (**I'm**) **not singing**	**Am** I **singing**?
You **are singing**	You **are not** (**aren't**) **singing**	**Are** you **singing**?
He / She / It **is singing**	He / She / It **is not** (**isn't**) **singing**	**Is** he / she / it **singing**?
We / You / They **are singing**	We / You / They **are not** (**aren't**) **singing**	**Are** we / you / they **singing**?

Uses	Examples	Time expressions
An action which is happening now	*Alex **is singing** right now.*	now, right now, at the moment
A temporary action	*They **are learning** French this year.*	this year, at present
A definite plan for the near future	*Bob **is meeting** Martin tonight.*	this evening, tonight, tomorrow, next Friday / week / year

Egitura

Baiezkoa: to be aditzaren orainaldiarekin + aditz nagusiari **ing** bukaera gehituta osatzen da. **Ing** bukaera gehitzeko, ondorengo ortografia-arauak jarraitu behar dira:

- Aditza **e** mutuaz bukatzen bada, **e** galdu egiten du: *ride - rid**ing***.
- **Y** batez bukatzen bada, ordea, hau mantendu egiten du: *pay - pa**ying***.
- **Ie** bukaera badu, bi hizki horiek **y** batez ordeztuko dira: *die - d**ying***.
- Silaba bakarreko aditza bada eta **bokal** batez + **kontsonante** batez amaitua, azken kontsonantea bikoizten da (**w** eta **x** kasuetan salbu): *run - ru**nning*** baina *show - sho**wing***.
- Bi silabaduna bada, lehenengoan badu azentua eta **l** edo **p** batez amaitzen bada, kontsonante hau bikoizten da: *travel - trave**lling***.
- Bi silabaduna bada, bigarrengoan badu azentua eta **bokal** + **kontsonante** batez bukatzen bada, kontsonante hau bikoizten da: *refer - refe**rring***.

Ezezkoa: to be aditzarekin osatzen da + **not** (edo **n't**) + **ing** bukaera duen aditz nagusiarekin.

Galderazkoa: to be + subjektua + **ing** amaiera daraman aditza hurrenkeran jarrita osatzen da.

Erabilerak

- Hitz egiteko unean zer gertatzen ari den adierazteko.
- Orainaldi zabalago batean gertatzen ari diren ekintza luzeez hitz egiteko.
- Etorkizun hurbilean ziurtasun osoz egingo duguna adierazteko, aldez aurretik finkatua baitugu.
- **Always** adberbioarekin, kexua adierazteko.
  *He **is always complaining**.* (Beti kexuka ari da.)

➡ Stative Verbs

Ekintzak baino egoerak adierazten dituztenez, *Present Simple* aldian erabiltzen dira. Ondorengo ezaugarriekin dute lotura:

- emozio eta sentimenduekin (**dislike**, **enjoy**, **hate**, **hope**, **like**, **love**, **prefer**, **want**),
- pentsamenduarekin eta iritziarekin (**believe**, **forget**, **guess**, **know**, **remember**, **think**, **understand**),
- pertzepzio eta zentzumenekin (**feel**, **hear**, **see**, **smell**, **sound**, **taste**, **touch**),
- prezio eta neurriekin (**cost**, **measure**, **weigh**) eta
- jabetzarekin (**belong**, **have**, **own**).

Batzuek egoera eta ekintza adieraz ditzakete. Horregatik, era bakunean nahiz iraunkorrean erabil daitezke.

*Donna **thinks** the book is wonderful.*
(Donnak liburua zoragarria dela uste du.) [egoera]

*He **is thinking** about going to Malta in the summer.*
(Udan Maltara joatea pentsatzen du.) [ekintza]

See aditzak *Present Continuous* aldian, bizkitartean, aldez aurretik finkaturiko etorkizuneko ekintza adierazten du.

*Brian and I **are seeing** Ann tonight.*
(Brianek eta biok Ann ikusiko dugu gaur gauean.)
[hitzartu dugu jada.]

➡ Aurrizkiak

Dis, **il**, **im**, **in** eta **un** aurrizkiak adjektibo batzuei gehituta, adjektibo horien esanahi negatiboa lortzen da.

satisfied (kontent)	***dis**satisfied* (kontentagaitz)
legal (legal)	***il**legal* (ilegal)
patient (pazientzia handiko)	***im**patient* (pazientzia gutxiko)
correct (zuzen)	***in**correct* (ez zuzen)
pleasant (atsegin)	***un**pleasant* (ez atsegin)

Gogoan izan **il** aurrizkia **l** batez hasten diren adjektiboen aurrean joaten dela (***il**logical*), eta **im**, berriz, **m** edo **p** batez hasten diren adjektiboen aurrean (***im**mortal*, ***im**possible*).

Kontuan eduki, bestalde, batzuetan ez direla aurrizkiak, hitzaren zati baizik: *disaster*, *illusion*, *impressive*, *understand*, etab.

Eta hitz-mota desberdinei eransten zaizkien beste aurrizkien artean ditugu **anti**, **inter**, **multi**, **over**, **re** eta **under**.

social (sozial)	***anti**social* (antisozial)
national (nazional)	***inter**national* (nazioarteko)
lateral (alde)	***multi**lateral* (aldeanitzeko)
active (gogotsu)	***over**active* (hipergogotsu)
write (idatzi)	***re**write* (berridatzi)
ground (lur)	***under**ground* (lur azpiko)

UNIT 2 *Travel*

PAST SIMPLE		
FORM		
Affirmative	**Negative**	**Interrogative**
I / You **finished**	I / You **did not** (**didn't**) **finish**	**Did** I / you **finish**?
He / She / It **finished**	He / She / It **did not** (**didn't**) **finish**	**Did** he / she / it **finish**?
We / You / They **finished**	We / You / They **did not** (**didn't**) **finish**	**Did** we / you / they **finish**?

Uses	Examples	Time expressions
A completed action in the past	*I **went** to Paris last year.*	yesterday, last week / year, two days ago, in 2007, in the 1980s, in the 18th century, when, then
A series of completed actions in the past	*When I **opened** the door, the dog **barked** at him.*	

Egitura

Baiezkoa: aditz erregular baten *Past Simple* aldia (lehenaldi bakuna), aditzaren oinarrizko formari **ed** amaiera gehituz osatzen dugu.

Gogoan izan ondorengo ortografia-arauak jarraitu behar direla **ed** bukaera gehitzeko:

- Aditza **e** mutuaz amaitzen bada, **d** gehituko dugu soilik: *prove - prove**d***.
- **Bokala** + **y** bukaera dutenek **ed** hartzen dute: *stay - stay**ed***.
- **Kontsonantez** + **y** batez amaitzen direnek, **y** hori **i** batez ordeztuko dute: *carry - carr**ied***.
- Silaba bakarrekoek eta **bokal** batez + **kontsonante** batez amaituek, kontsonantea bikoizten dute (**w** eta **x** kontsonanteak salbu): *stop - sto**pped***, baina *fix - fix**ed***.
- Bi silabadunak badira, azentua aurrenekoan daramatenak, eta **l** edo **p** amaiera dutenak, azken kontsonante hau bikoiztuko dute: *cancel - cance**lled***.
- Bi silabadunak badira, azentua azkenekoan daramatenak eta **bokal** batez + **kontsonante** batez amaitzen direnak, azken kontsonantea bikoizten dute: *prefer - prefe**rred***.

Aditz irregularrek, 32-33 orrialdeetako zerrendan ikus dezakezun bezala, ez dituzte aldaketa hauek jasaten.

Ezezkoa: did not (**didn't**) + aditzaren oinarrizko formarekin osatzen da.

Galderazkoa: did + subjektua + aditz nagusia hurrenkeran jarrita osatzen da.

Erabilerak

- Lehenaldiko une zehatz batean gertatutako ekintzez hitz egiteko.
- Iraganeko ondoz ondoko ekintzak adierazteko.
- Ekintza luze bat abian zegoen bitartean gertatu zen ekintza laburra adierazteko (honek **when** juntagailua darama hasieran).

  *Phil was returning home **when** his car **broke** down.*
  (Phil etxera itzultzen ari zela, kotxea matxuratu zitzaion.)
- Iraganean gauzak nola ziren kontatzeko edo deskribatzeko.

  *In the 19th century, women **didn't wear** bikinis.*
  (XIX. mendean emakumeek ez zuten bikinirik erabiltzen.)

Ago denborazko esamoldea, adierazitako denbora-unearen atzean jartzen da, eta "orain dela" esan nahi du.

*They left two hours **ago**.* (Orain dela bi ordu alde egin dute.)

PAST CONTINUOUS

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I **was writing**	I **was not** (**wasn't**) **writing**	**Was** I **writing**?
You **were writing**	You **were not** (**weren't**) **writing**	**Were** you **writing**?
He / She / It **was writing**	He / She / It **was not** (**wasn't**) **writing**	**Was** he / she / it **writing**?
We / You / They **were writing**	We / You / They **were not** (**weren't**) **writing**	**Were** we / you / they **writing**?

Uses	Examples	Time expressions
An incomplete action in progress at a specific time in the past	*At 9 o'clock last night, Eric **was visiting** his parents.*	last night / week / year, at 4 o'clock, when, while, as
An incomplete action interrupted by another action	*They **were skiing** when their parents arrived at the resort.*	
Two incomplete actions in progress at the same time in the past	*The plane **was taking off** as I **was driving** to the airport.*	

Egitura

Baiezkoa: to be aditzaren lehenaldiarekin + aditz nagusiari **ing** amaiera gehituta osatzen da.

Ezezkoa: was / **were** aldaerei **not** (edo **n´t**) ezarriz + aditz nagusiari **ing** amaiera gehituta osatzen da.

Galderazkoa: to be + subjektua + **ing** amaiera daraman aditza hurrenkeran jarrita osatzen da.

Erabilerak

- Iraganeko une zehatz batean gertatzen ari zena adierazteko.
- Beste gauza labur bat jazo zenean, ekintza luzeren bat gertatzen ari zela adierazteko. Luzeak **while** edo **as** darama eta motzak **when**.
- Iraganean aldi berean gertatzen ari ziren ekintzak adierazteko. Kasu honetan **while** edo **as** juntagailuen bitartez lotuta doaz.

PAST PERFECT SIMPLE		
FORM		
Affirmative	**Negative**	**Interrogative**
I / You **had arrived**	I / You **had not** (**hadn't**) **arrived**	**Had** I / you **arrived**?
He / She / It **had arrived**	He / She / It **had not** (**hadn't**) **arrived**	**Had** he / she / it **arrived**?
We / You / They **had arrived**	We / You / They **had not** (**hadn't**) **arrived**	**Had** we / you / they **arrived**?

Uses	Examples	Time expressions
A completed action which took place before another action in the past	*By the time he arrived, the train **had** already **left**.*	already, by the time, after, before, until, never, just

Egitura

Baiezkoa: *Past Perfect Simple* (lehenaldi burutua) adizkiaren egitura **to have** aditzaren lehenaldiarekin + aditz nagusiaren partizipioarekin eratzen da.

Ezezkoa: had not (**hadn´t**) + aditz nagusiaren partizipioa erabiliz osatzen da.

Galderazkoa: had + subjektua + aditzaren partizipioa hurrenkeran jarrita osatzen da.

Erabilerak

- Ekintza bat beste ekintza baten aurretik burutu zela adierazteko. Azken hau *Past Simple* aditz-denboran doa.

➡ Phrasal Verbs

Aditz hauek partikula bat edo gehiago izaten dute ondotik, eta elkarrekin esanahi berria hartzen dute, bakarka zuten esanahia ez den beste bat.

Iragankorrak edo iragangaitzak izan daitezke.

*How did you **get to** the party?* (Nola iritsi zinen festara?)
*I **set off** at 8 o'clock.* (Zortzietan abiatuko naiz.)

Iragankor gehienen kasuan, osagai zuzena jar daiteke aditzaren eta partikularen artean. Osagai hori izenordaina bada, derrigorrez tartean jarri behar da; baina izena bada, jar daiteke tartean edo atzean.

*I'm going to **pick up** my brother at the station.*
(Anaia jasotzera noa geltokira.)
*I'm going to **pick** my brother **up** at the station.*
*I'm going to **pick** him **up** at the station.*

Nolanahi den, iragankor batzuk, iragangaitz guztiak eta bi partikulez osatuak direnak banaezinak dira.

*Abel is **looking for** his keys / them.*
(Abel giltzen / haien bila dabil.)

Aditz batzuek partikula desberdinak onartzen dituztenez, *phrasal verbs* desberdinak osatzen dituzte.

get across (komunikatu, ulertarazi; gurutzatu, igaro)
get by (moldatu, konpondu)
get through (komunikatu, hitz egitea lortu)

Gainera, *phrasal verbs* askok esanahi bat baino gehiago dituzte:

get into (sartu; interesa erakutsi)
turn down ((bolumena) jaitsi; uko egin)
turn up ((bolumena) igo; azaldu, agertu)
switch off (itzali; deskonektatu; arreta galdu)

Ikus 27-28 orrialdeetan duzun zerrenda, adibide gehiago aztertu ahal izateko.

➡ Adberbioak

Modu-adberbioak

Modu-adberbioek aditzak aldatzen dituzte, ekintza nola gertatu den deskribatzen baitute. **How ...?** galdetzaileaz hasitako galderak erantzun daitezke adberbio horiekin.

Gehienak erregularrak dira eta dagokion adjektiboari **ly** bukaera gehituz osatzen dira:

careful (arretatsu)	*careful**ly*** (arretaz)
neat (txukun)	*neat**ly*** (txukunki)
quick (bizkor)	*quick**ly*** (agudo, arin)
slow (makal)	*slow**ly*** (poliki)

Beste batzuek, ordea, ondorengo hauek bezala, irregularrak dira:

fast (azkar)	***fast*** (agudo, arin)
good (on)	***well*** (ongi)
hard (zail)	***hard*** (indarrez, asko)

Modu-adberbioak aditzaren aurrean edo atzean jar daitezke.

***Well** done, Patrick! It's a great exam result.*
(Ongi egina, Patrick! Azterketa-emaitza bikaina da.)
*My father drove **fast** because he was late for work.*
(Nire aitak azkar gidatu zuen, lanerako berandu zebilen eta.)

Esaldi osoari eragiten dioten adberbioak

Era honetako adberbioek esaldi osoari eragiten diote eta hiztunaren iritzia edo jarrera azaltzen dute.

***Luckily**, they believed me when I told the truth.*
(Zorionez, sinestu zidaten egia kontatu nienean.)

Gehienetan esaldiaren hasieran kokatzen dira nahiz eta erdian ere aurki ditzakegun.

*He has **probably** left the city by now.*
(Agian hiritik alde egin du jada.)

Intentsitate-adberbioak

Zenbait adjektibo eta adberbioren laguntzaile gisa erabiltzen dira, eta beroien esangura ñabartzen dute, indarra areagotuz edo gutxiagotuz.

a bit (pixka bat)	*rather* (dezente)
fairly (nahiko)	*really* (egiaz)
not at all (batere ez)	*slightly* (pixka bat)
pretty (nahiko)	*totally* (guztiz)
quite (oso, dezente)	*very* (oso)

Lagungai duten adjektiboaren edo adberbioaren aurrean joaten dira.

*Meeting the Queen was **quite** exciting.*
(Erregina ezagutzea oso zirraragarria izan zen.)

➡ used to / would

Iraganean ohikoak ziren baina gaur egun gertatzen ez diren ekintzak deskribatzen dituzte. Horregatik arrunta da esaldian maiztasun-adberbioak nahiz -esamoldeak agertzea.

***Every night**, Bob **used to** dream about becoming an actor.*
(Gauero Bobek antzezlea izatearekin amets egiten zuen.)

*When I was a child, we **would often** go to the country.*
(Umea nintzela, mendira joaten ginen maiz.)

Used to, halaber, iraganeko egoerei buruz hitz egiteko ere erabiltzen da, eta orduan ez dugu maiztasunezko "ohi" edo -t(z)en amaiera daramala itzuliko, lehenaldi soilaz baizik. Kasu honetan ezin da **would** erabili.

*I **used to** live in this street.* (Ni kale honetan bizi nintzen.)
** I **would** live in this street.* [Ez da zuzena.]

Used to egiturak ez du orainaldiko formarik. Ezezko nahiz galderazko esaldietan **did** laguntzailea erabili beharra dugu, eta, orduan, **used** aditzak bukaerako "**d**" galtzen du.

***Did** your mother **use to** travel a lot when she was young?*
(Zure amak asko bidaiatzen zuen gaztea zenean?)

UNIT 3 *Sport*

PRESENT PERFECT SIMPLE		
FORM		
Affirmative	**Negative**	**Interrogative**
I / You **have lived**	I / You **have not** (**haven't**) **lived**	**Have** I / you **lived**?
He / She / It **has lived**	He / She / It **has not** (**hasn't**) **lived**	**Has** he / she / it **lived**?
We / You / They **have lived**	We / You / They **have not** (**haven't**) **lived**	**Have** we / you / they **lived**?

Uses	Examples	Time expressions
An action that began in the past and continues until the present	*I **have lived** in York for two years.*	never, ever, already, just, yet, recently, lately, how long ...?, for, since, in recent years
An action that took place at an undetermined time in the past, but is connected to the present	*Pam **has moved** house recently.*	

Egitura

Baiezkoa: have / **has** + aditz nagusiaren partizipioarekin osatzen da.

Ezezkoa: have / **has** + **not** (edo **n't**) + partizipioa dugu egitura.

Galderazkoa: have / **has** + subjektua + partizipioa hurrenkeran jarrita osatzen da.

Erabilerak

- Iraganean hasi eta gaur egun oraindik jarraipena duten ekintzez hitz egiteko. Horregatik, batzuetan aditz-denbora hau itzultzerakoan, orainaldia hautatzen da.
- Iraganekoak izan arren, gaur egun oraindik ondorioak agirian dituzten ekintzei buruz hitz egiteko.
- Ekintza gertatu berria dela adierazteko. Kasu honetan **just** erabiltzen da aditz laguntzailearen eta partizipioaren artean.

  *Your team has **just** scored a goal.*
  (Zure taldeak gola sartu berri du.)

Never, **ever**, **already** eta **just** aditz laguntzailearen (**have**) eta partizipioaren artean kokatzen dira; **yet**, aldiz, beti esaldiaren bukaeran.

*The match has **already** started.*
(Partida oraintsu hasi da.)

*Have you seen the new car **yet**?*
(Ikusi al duzu kotxe berria jada?)

Baiezkoetan **just**, **never** eta **already** erabiltzen dira; ezezkoetan **yet**; galderetan, berriz, **already**, **ever**, **yet** eta **just**.

*I've **never** played basketball.*
(Inoiz ez naiz saskibaloian jostatu.)

*She hasn't tried snowboarding **yet**.*
(Hark ez du oraindik snowboard kirola probatu.)

*Have you **ever** met a football player?*
(Inoiz ezagutu al duzu futbolariik?)

How long ...? erabiliz, ekintzaren iraupenaz galdetzen dugu. Alegia, ekintza hasi zenetik zenbat denbora pasa den, kontuan izanda ekintzak iraun egiten duela oraindik.

***How long have** they **lived** here?*
(Zenbat denbora da hemen bizi direla?)

For preposizioak ekintzak zenbat denbora iraun duen azaltzen du, eta **since** preposizioak ekintza hasi zeneko une zehatza adierazten du.

*I **have played** volleyball **for** two years / **since** I was a child.* (Bi urtez jokatu dut boleibolean. / Ume nintzenetik jokatu dut boleibolean.)

➡ *Past Simple* eta *Present Perfect Simple* aditz-denboren arteko desberdintasuna

Past Simple aditz-denborak iraganeko une zehatz batean jazotakoa adierazten duen bitartean, *Present Perfect Simple*-k ekintza denbora-tarte batean kokatzen du.

➡ Gerundioa eta infinitiboa

Gerundioa

Ingelesez **ing** bukaera duen adizkia da, eta izenaren funtzioa betetzen duena ondorengo kasuetan:

- Zenbait aditzen osagai zuzen gisa: **consider**, **continue**, **deny**, **detest**, **dislike**, **enjoy**, **finish**, **hate**, **like**, **love**, **miss**, **prefer**, **recommend**, **suggest**, etab.
  *I enjoy **doing** sport.* (Kirola egiten gozatzen dut.)
- Preposizioen ondotik.
  *Lucy doesn't like his style of **playing**.*
  (Lucyri ez zaio gustatzen haren jokatzeko era.)
- Aditz-forma batzuen ondotik: **be used to** / **get used to**, **can't help**, **can't stand**, **don't mind** / **wouldn't mind**, **feel like**, **it's no use**, **look foward to**, etab.
  *I like **playing** rugby.* (Errugbian jokatzea gustatzen zait.)
- Perpauseko subjektu bezala, ekintzei buruz era orokorrean ari garenean.
  ***Taking up** a new sport is not easy.*
  (Kirol berri bat egiten hastea ez da erraza.)

Infinitiboa

Aurretik **to** daraman adizkia dugu. Honela erabiltzen da:

- Ondorengoak bezalako aditzen atzetik: **agree**, **appear**, **choose**, **decide**, **expect**, **hope**, **learn**, **plan**, **promise**, **refuse**, **seem**, **want**, **wish**, etab.
  *He decided **to try** parkour.* (Parkour probatzea erabaki zuen.)
- Zenbait adjektibo eta adberbioren ondotik.
  *He woke up early **to go** fishing.*
  (Goiz esnatu zen arrantzara joateko.)
- **Advise**, **help**, **invite**, **persuade**, **teach**, **tell** edo **warn** bezalako aditzen zeharkako osagarriaren ondotik.
  *He invited me **to join** them.*
  (Eurekin elkartzera gonbidatu ninduen.)

Hala ere, pertzepzio aditz batzuek (**hear**, **feel**, **see**, etab.), eta **make** nahiz **let** aditzek aditzoina (**to** gabeko infinitiboa) daramate ondotik.

*I let Sally **come** with us.* (Gurekin etortzen utzi nion Sallyri.)

Gerundioz eta infinitiboz jarraituriko aditzak

Aditz batzuen ondotik gerundioa nahiz infinitiboa jar daiteke, esanahia batere aldatzen ez delarik, adibidez, **begin**, **forbid**, **intend**, **propose** edo **start**:

*They started **to answer** / **answering** the letters.*
(Gutunak erantzuten hasi ziren.)

Beste aditz batzuek, aldiz, esangura desberdinak dituzte, gerundioa ala infinitiboa, zer daramaten ondotik. Honatx adibide batzuk:

- **forget** + **gerundioa** ezezko esaldietan erabiltzen da, iraganean egindako zerbait ahaztea ezinezkoa dela adierazteko.
  *I'll never **forget meeting** Angelina Jolie.*
  (Inoiz ez dut ahaztuko Angelina Jolie ezagutu nuela.)
  forget + **infinitiboa** zerbait egitea ahaztu zaigula adierazteko.
  *He always **forgets to bring** the keys.*
  (Beti ahazten zaio giltzak ekartzea.)
- **remember** + **gerundioa** iraganean egindako zerbait gogoratzen dugula adierazteko.
  *I **remember giving** them their tickets.*
  (Gogoratzen naiz txartelak eman nizkiela.)
  remember + **infinitiboa** zerbait egin behar dela gogorarazteko.
  ***Remember to close** the door before you go.*
  (Gogoratu atea ixtea alde egin aurretik.)
- **stop** + **gerundioa** zerbait egiteari utzi diogula adierazteko.
  *Bob **stopped smoking** last year.*
  (Bobek erretzeari utzi zion iaz.)
  stop + **infinitiboa** beste gauza bat egiten hasteko ekintza bat eten behar dela adierazteko.
  *Can we **stop to have** coffee?*
  (Geldi al gaitezke kafea hartzeko?)

UNIT 4 *The Environment*

FUTURE SIMPLE

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **will allow**	I / You **will not** (**won't**) **allow**	**Will** I / you **allow**?
He / She / It **will allow**	He / She / It **will not** (**won't**) **allow**	**Will** he / she / it **allow**?
We / You / They **will allow**	We / You / They **will not** (**won't**) **allow**	**Will** we / you / they **allow**?

Uses	Examples	Time expressions
A prediction	*The government **will allow** this type of experiment.*	this evening, in an hour, at 2 o'clock, later, tomorrow, next month / year, soon, in a few weeks, in the future, on 1st May
A timetable	*The TV programme **will start** at 5 o'clock.*	
A spontaneous decision	*I've got a lot of newspapers. I **will recycle** them.*	

Egitura

Baiezkoa: will aditz nagusiaren oinarrizko formaren aurrean kokatu behar dugu, baina ingeles mintzatuan ohikoena subjektuarekin uztartzea denez, orduan **will** laguntzailea "l" bakar bezala ahoskatuko da.

Ezezkoa: will not + aditzaren oinarrizko forma erabiliz osaten da. Baina forma laburtua (**won´t**) arruntagoa da ingeles mintzatuan.

Galderazkoa: will + subjektua + aditzaren oinarrizko egitura erabiliz osatzen da.

Erabilerak

- Etorkizuneko gertakariak adierazteko edo iragarpenak egiteko.
- Finkatutako ordutegi bati buruz hitz egiteko.
- Bat-bateko erabakiak adierazteko, hots, hitz egiten ari garen unean hartutako erabakiak adierazteko.

BE GOING TO

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I **am going to buy**	I **am not going to buy**	**Am** I **going to buy**?
You **are going to buy**	You **are not** (**aren't**) **going to buy**	**Are** you **going to buy**?
He / She / It **is going to buy**	He / She / It **is not** (**isn't**) **going to buy**	**Is** he / she / it **going to buy**?
We / You / They **are going to buy**	We / You / They **are not** (**aren't**) **going to buy**	**Are** we / you / they **going to buy**?

Uses	Examples	Time expressions
A planned action for the future	*Mike **is going to buy** a hybrid car next year.*	this evening, later, in an hour, at 4 o'clock, tomorrow, soon, next month / year, in a few weeks, on 8th May
An action that is about to happen	*Be careful! The dog **is going to bite** you!*	

Egitura

Baiezkoa: to be aditzaren orainaldiarekin + **going to** + aditz nagusiaren oinarrizko formarekin osatzen da; "-t(z)era joan" itzul dezakegu.

Ezezkoa: to be + **not** (o **n't**) + **going to** + aditz nagusiaren oinarrizko formarekin osatzen da.

Galderazkoa: to be + subjektua + **going to** + aditzoina ezarri behar dugu.

Erabilerak

- Etorkizun hurbilerako ditugun asmoei, erabakiei eta planei buruz hitz egiteko.
- Gertatzeko zorian dagoen zerbait adierazteko, aztarnak begi-bistakoak direlako.

➡ *Present Continuous* etorkizun zentzuarekin

Aldez aurretik finkatuta egonik, etorkizun hurbilean gauzatuko diren ekintzak adierazten ditu. Hitzartutako egitasmo pertsonalekin erabiltzen ohi da.

Be going to egiturak asmoa adierazten du; honek, berriz, asmoa ez baizik eta ziur gertatuko den ekintza. Esaldiak etorkizuneko denbora-esamoldea eramango du, ez orainaldikoa, eta horrek adierazten digu ez dela egiazko *Present Continuous* aldia.

*He **is going to sign** a contract **next month**.*
(Datorren hilean sinatuko du kontratua.) [asmoa]

*He **is signing** a contract **tomorrow**.*
(Bihar doa kontratua sinatzera.) [hitzarturiko egitasmoa]

FUTURE CONTINUOUS

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **will be travelling**	I / You **will not** (**won't**) **be travelling**	**Will** I / you **be travelling**?
He / She / It **will be travelling**	He / She / It **will not** (**won't**) **be travelling**	**Will** he / she / it **be travelling**?
We / You / They **will be travelling**	We / You / They **will not** (**won't**) **be travelling**	**Will** we / you / they **be travelling**?

Uses	Examples	Time expressions
An action in progress at a certain future time	*At this time tomorrow, Jack and Brian **will be arriving** in Brighton.*	at this time tomorrow / next ..., on Thursday, in the next decade

Egitura

Baiezkoa: will be + **ing** amaiera duen aditz nagusia erabiliz osatzen da.

Ezezkoa: will not (**won't**) **be** + **ing** daraman aditzarekin osatzen da.

Galderazkoa: will + subjektua + **be** + **ing** bukaeradun aditza erabiliz osatzen da.

Erabilerak

- Etorkizuneko une zehatz batean zer gertatzen ariko den adierazteko erabiltzen da.

FUTURE PERFECT SIMPLE

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **will have eaten**	I / You **will not** (**won't**) **have eaten**	**Will** I / you **have eaten**?
He / She / It **will have eaten**	He / She / It **will not** (**won't**) **have eaten**	**Will** he / she / it **have eaten**?
We / You / They **will have eaten**	We / You / They **will not** (**won't**) **have eaten**	**Will** we / you / they **have eaten**?

Uses	Examples	Time expressions
A completed action at a certain future time	*I **will have eaten** by 3 o'clock.*	by this time next week, by 3 o'clock, by the end of ..., by then, by August, in four months

Egitura

Baiezkoa: will have + aditz nagusiaren partizipioarekin eratzen da.

Ezezkoa: will not (**won't**) **have** + partizipioarekin osatzen da.

Galderazkoa: will + subjektua + **have** + partizipioa erabili behar dugu.

Erabilerak

- Etorkizuneko une zehatz batean ekintza amaituta egongo dela adierazteko.

➡ want + infinitiboa / want + objektua + infinitiboa

- **want + infinitiboa:** zerbait egiteko desioa adierazten du.

  *Joe **wants to forget** the ecological disaster.*
  (Joek hondamendi ekologikoa ahaztu nahi du.)

  Euskaraz osagarri zuzenaren funtzioa duen infinitibo batez jarraitua joaten da, beraz, **want** aditzaren eta infinitiboaren subjektua bera da.

- **want + objektua + infinitiboa:** beste norbaitek zerbait egin dezan desioa adieraziko dugu.

  *Environmental groups **want people to recycle** paper.*
  (Talde ekologistek jendeak papera birzikla dezan nahi dute.)

  Euskaraz, subjektua duen eta aditza subjuntiboan daraman menpeko perpausa erabiltzen dugu; ingelesez, berriz, subjektua ez da egiaz subjektutzak jotzen, **want** aditzaren osagarri zuzentzat baizik; horregatik osagarri zuzena izenordaina denean, izenordain objektuak erabiliko dira.

  *Do you **want me to phone** for help?*
  (Laguntza eske dei dezadan nahi al duzu?)

UNIT 5 *Communication*

ERLATIBOZKO PERPAUSAK	
DEFINING RELATIVE CLAUSES	
Uses	**Examples**
who and **that** refer to people	*Nerriere was the first person **who** / **that** studied this phenomenon.*
which and **that** refer to objects	*This is the new mobile phone **which** / **that** I've just bought.*
when and **that** refer to a moment in time	*He gave me an iPod the day **when** / **that** I celebrated my birthday.*
where refers to a particular place	*The airport was the place **where** he first heard Globish.*
whose refers to possession	*This is the man **whose** laptop I bought.*
NON-DEFINING RELATIVE CLAUSES	
Uses	**Examples**
who, **which**, **when**, **where**, **whose** can all be used, but **that** cannot be used	*My brother, **who** is an engineer, designs robots.* *This MP3 player, **which** is rather old, has got poor sound quality.*

Erlatibozko izenordain edo adberbio batez hasten diren menpeko perpausak dira, eta bi motatakoak daude: **defining** (murrizgarriak) eta **non-defining** (ez-murrizgarriak).

Defining Relative Clauses

Murrizgarriek aurrekariari buruzko ezinbesteko informazioa ematen digute. Hauek izan ezean, perpausaren esanahia osatu gabe gelditu litzateke.

- Erlatibozko izenordain hauek **who** (pertsonak), **which** (gauzak) eta **that** (pertsonak eta gauzak) ken daitezke, subjektu-funtzioa betetzen ez badute. **Whose** (jabetza) ezin da ez kendu, eta ez ordeztu.

  *She is the girl (**who** / **that**) I met in England.*
  (Hura da Ingalaterran ezagutu nuen neska.)

  *I did not get the e-mail (**which** / **that**) you sent.*
  (Ez nuen zuk bidalitako e-maila jaso.)

  *This is the blog **whose** author is unknown.*
  (Hau da egile ezezaguna duen "bloga".)

- **When** (denbora) eta **where** (lekua) erlatibozko adberbioak dira. **When** ken dezakegu edo bere ordez **that** erabili. **Where** ezin da **that** bitartez ordeztu eta gutxitan ken daiteke.

  *I'll never forget the day (**when** / **that**) I met her.*
  (Inoiz ez dut ahaztuko hura ezagutu nuen eguna.)

  *I visited the area **where** all the trendy shops are.*
  (Modako denda guztiak dauden gunea bisitatu nuen.)

Erlatibozkoak preposizioa badarama, ohikoena kentzea da, eta preposizioa aditzaren ondoren kokatzea.

*The boy (**who** / **that**) I talked **to** was nervous.*
(Nirekin hitz egiten aritu zen mutila urduri zegoen.)

Non-defining Relative Clauses

Ez-murrizgarriek aurrekariari buruzko informazio gehigarria soilik ematen digute, horregatik, koma artean doaz. **Who**, **which**, **when**, **where** eta **whose**kin eraikitzen dira (inoiz ez **that**ekin). Halaber, inoiz ezin dira kendu, eta hizkuntza mintzatuan ez dira erabiltzen, oso esaldi jasoak baitira .

*Jack, **who is English**, works for a French firm.*
(Jackek, ingelesa denak, entrepresa frantziar batentzat egiten du lan.)

➡ Preposizioz jarraituriko aditzak

Aditz askok ingelesez preposizio bakarra eramaten dute jarraian.

*I'm **waiting for** the bus.* (Autobusaren zain nago.)

Beste aditz batzuek preposizio bat baino gehiago onartzen dituzte, eta preposizioen arabera, aditzaren esanahia aldatu egiten da.

arrive at (leku batera "iritsi")
arrive in (hiri edo herrialde batera "iritsi")
talk about ("zerbaiti / norbaiti buruz" hitz egin)
talk with / to ("norbaitekin" hitz egin)
think about ("iritzi, iruditu": "-n pentsatu")
think of ("-n pentsatu")

Hona hemen adibide batzuk:

*She has already **arrived at** the office.*
(Bulegora iritsi da jada.)

*He **arrived in** Cartagena on Sunday morning.*
(Igande goizean iritsi zen Cartagenara.)

*We **talked about** our teachers.*
(Gure irakasleei buruz hitz egin genuen.)

*The reporters want to **talk to** Bruce Willis.*
(Kazetariek Bruce Willisekin hitz egin nahi dute.)

Adibide gehiago aztertzeko ikus ezazu 28. orrialdean duzun aditzen zerrenda.

UNIT 6 *Culture and Customs*

MODALAK		
Modals	**Uses**	**Examples**
be able to	Ability	*Her brother **is able to speak** many different languages.*
can	Ability Request Possibility	*My sister **can cook** Moroccan food.* ***Can** I **phone** you this evening?* *Parkour **can be** dangerous.*
can't	Lack of ability Certainty that something is impossible	*Alice **can't speak** Japanese.* *It isn't very late. The pub **can't be** closed.*
could	Past ability Polite request Polite suggestion Possibility	*Aitor **could run** marathons when he was younger.* ***Could** you **help** me with the suitcases?* *Your cousin **could take** a taxi to the station.* *It **could be** useful to learn about other cultures.*
don't have to	Lack of obligation	*We **don't have to get up** early on Sunday.*
have to	Necessity, obligation	*You **have to arrive** on time. It's rude to be late.*
may	Possibility Polite request	*It **may snow** tomorrow.* ***May** I **join** this team?*
might	Possibility	*It **might be** easier if Daniel helped you.*
must	Necessity, obligation Certainty that something is true	*Spanish students **must learn** English at school.* *Debbie has got a great job. She **must be** very happy.*
mustn't	Prohibition	*You **mustn't exceed** the speed limit.*
need to	Necessity, obligation	*You **need to study** harder.*
needn't	Lack of obligation / necessity	*You **needn't bring** anything - there's lots of food.*
ought to	Advice, opinion	*My friend **ought to improve** her manners.*
should	Advice, opinion	*You **should try** Indian food. It's great!*
would	Formal request Offer	***Would** you **open** the window, please?* ***Would** you **like** something to drink?*

➡ Aditz modalak

- Aldagaitzak dira, horrenbestez, forma bera dute pertsona guztiekin.
- Ez dute **do** laguntzailearen beharrik ezezko eta galderazko formak osatzeko.
- Jarraian aditzoinak daramatzate beti.
- Ez dute infinitiborik, partizipiorik, etorkizunik, **ing** amaieradun formarik, ez eta aditz-denbora elkarturik ere.

Be able to eta **have to** aditzek ez dituzte ezaugarri horiek guztiak; bai, ordea, aditz modalen erabilera batzuk (gaitasuna, obligazioa, etab.).

can / be able to / can't

Can aditza trebetasuna edo gaitasuna adierazteko erabiltzeaz gain, eskaerak egiteko, baimena eman eta eskatzeko eta posibilitatea azaltzeko ere erabiltzen da.

Erabilera hauek denak ezezkoan **can't** ezeztatuarekin osatuko ditugu; ezezkoan, gainera, zerbait ezinezkoa den ziurtasuna ere adierazten du.

Can orainaldian bakarrik erabil daiteke, beraz, gainontzeko aditz-denboretan **be able to** aditzaz baliatuko gara.

could

Trebetasuna iraganean adierazteko erabiltzen da, baita **can** aditzarekin baino modu jasoagoan zerbait eskatzeko ere, eta **can** aditzarekin baino posibilitate urriagoa adierazteko.

may / might

Zerbait gertatuko den posibilitatea adierazten dute (**might** aditzak urriagoa). **May**, halaber, eskaerak **can** aditzarekin baino era jasoagoan egiteko erabiltzen da.

must / have to

Batak zein besteak obligazioa eta beharra adierazten dute, baina **must** erabiltzean obligazioa indartsuagoa da (legeak edo autoritatea duen norbaitek ezarria denean). Era berean, ondorio logikoak adierazteko ere erabiltzen dira ("antza", "nonbait").

Must orainaldian bakarrik erabil daiteke, beraz, gainontzeko aditz-denboretan **have to** aukeratuko dugu.

need to / needn't

Need to ez da modala, **do** laguntzailearen beharra baitu ezezko eta galderetarako, eta edozein denboratan erabil daiteke, jokatu egiten baita.

Needn't, kontrara, modala da, eta ezezkoan bakarrik erabiltzen da, zerbait egiteko obligaziorik edo beharrik ez dagoela azaltzeko (**don't have to** forma bezala).

mustn't / don't have to

Mustn't formak debekua adierazten du. **Don't have to** formak, aitzitik, "ez eduki zertan / beharrik ez" adiera du, bestela esanda, obligazio eta beharrik eza (**needn't** modalak bezalaxe).

should / ought to

Aholkuak eta gomendioak emateko erabiltzen dira biak. **Ought to**, ordea, kasik ez da erabiltzen ezezko eta galderetan. **Should** da bietan erabiliena.

would

Zerbait era jasoan eskatzeko edo eskaintzeko erabiltzen da.

MODAL BURUTUAK		
Modal Perfects	**Uses**	**Examples**
could have	Ability to have done something but in fact did not	*It was a stupid thing to do. You **could have hurt** yourself.*
couldn't have	Certainty that something didn't happen	*Eric **couldn't have broken** the vase. He wasn't at home.*
may / might have	A guess about a past action	*Elisa **may** / **might have taken** the wrong bus.*
must have	Certainty or logical conclusion about an event in the past	*I hear you've been to Scotland. That **must have been** interesting.*
should / ought to have	Criticism or regret after an event	*You **should** / **ought to have warned** me earlier.*
shouldn't have	Criticism or regret after an event	*I **shouldn't have eaten** so much.*
would have	Willingness to have done something but in fact did not	*I **would have gone** to the party, but I was too busy.*

could have + partizipioa

Iraganean zerbait egin zitekeen arren, azkenean ez zela egin adierazten du.

couldn't have + partizipioa

Zerbait gertatu izana ezinezkoa dela adierazteko.

may / might have + partizipioa

Gertatutako zerbaiti buruz iragarpenak egiteko erabiltzen da.

must have + partizipioa

Gertatutako ekintza batekiko ondorio logikoa edo ustea azaltzeko erabiltzen da.

should / ought to have + partizipioa

Bi forma hauekin gertatutako zerbaiti buruz kexua edo espero genuena bete ez delako pena adieraz dezakegu.

shouldn't have + partizipioa

Iraganeko gertakizun bati buruzko iritzi kritikoa adierazten du, ez zuela gertatu izan behar adieraziz.

would have + partizipioa

Iraganean zerbait egin nahi izan zela, baina kanpoko baldintzak medio, egiterik egon ez zela adierazten du.

➡ Adjektiboak eratzeko atzizkiak

Atzizkiak hitzen erroei gehitzen dizkiegun bukaerak dira, horrela hitz berriak erdiesteko.

Ondorengoak izenei eta aditzei eransten zaizkien atzizkiak dira, adjektiboak lortzeko:

predict (aurresan)	*predict**able*** (aurresan daitekeena)
nation (nazio)	*nation**al*** (nazional)
consider (kontuan izan)	*consider**ate*** (zentzudun)
beauty (edertasun)	*beauti**ful*** (eder)
pain (min)	*pain**less*** (minik gabeko)
contempt (mespretxu)	*contempt**ible*** (mespretxugarri)
attract (erakarri)	*attract**ive*** (erakargarri)
danger (arrisku)	*danger**ous*** (arriskutsu)

Izen batzuekin goiko aurrizkietako bat baino gehiago erabil daitezke:

*care**ful*** -*care**less*** *harm**ful*** - *harm**less***

Beste batzuek, aldiz, bakarra onartzen dute:

*home**less*** - **home**ful*** **peace**less*** - *peace**ful***

Eta aditzetatik adjektiboak erdiesteko beste bi atzizki **ed** eta **ing** ditugu.

bore (aburrir)	*bor**ed*** (aspertuta)
	*bor**ing*** (aspergarri)

Ed bukaeradun adjektiboarekin deskribatuko dugu pertsona edo gauza batek ondorio zehatz bat sentitzen edo jasaten duela; **ing** amaieradun adjektiboarekin, berriz, ondorio hori eragiten duen pertsona edo gauza

*Jack is **boring** so I'm **bored** when I go out with him.*
(Jack aspergarria da, ondorioz, aspertu egiten naiz berarekin ateratzen naizenean.)

➡ be used to / get used to

Be used to formak "ohituta egon" adiera du, aldiz, **get used to** forma ohitzearen prozesuarekin lotua dago. Kasu bietan **to**

partikularen atzean izena ala gerundioa doa.

Azken bi egitura hauek ez dute zerikusirik aurretik ikusi duzun **used to** (2. unitatea) egiturarekin. Bi egitura hauetako **used** ez baita aditza, adjektiboa baizik.

Used formari laguntzen dioten aditzak **be** eta **get** dira, eta hauek jokatu egiten dira.

*Famous actors **are used to** the paparazzi.*
(Antzezle ospetsuak ohituta daude paparazzietara.)

*She **is used to** going to the gym every afternoon.*
(Arratsaldero gimnasiora joaten ohitua dago.)

*He **is getting used to** his new routine.*
(Ohitzen ari da bere errutina berrira.)

*I cannot **get used to** living in such a noisy street.*
(Ezin naiz ohitu halako kale zaratatsuan bizitzen.)

UNIT 7 *Technology*

BALDINTZAZKO PERPAUSAK		
FIRST CONDITIONAL		
Conditional clause	**Result clause**	**Examples**
if / + Present Simple / unless	Future Simple	*You **will download** the attached file **if** you **click** twice.*
	imperative	***Send** Tina a text message **if** you **want** to contact her.*
	modal + base form	***If** the mouse **is** broken, Mary **can use** the keyboard.*
SECOND CONDITIONAL		
if / + Past Simple / unless	would	***If** they **had** enough money, they **would buy** this laptop.*
	+ base form	*I **could** / **might open** a restaurant if I **won** the lottery.*
	could / might	
THIRD CONDITIONAL		
if + Past Perfect	would have	***If** I **had read** her e-mail, I **would have gone** on the date.*
	+ past participle	*He **could** / **might have met** her if he **had gone** to the party.*
	could / might have	

Baldintzazko perpausak baldintza adierazten duen perpaus batez (**conditional clause**) eta ondoriozko ekintza edo emaitza adierazten duen perpaus nagusiaz (**result clause**) osatuta daude. Ondoren ingelesez dauden baldintzazko hiru perpaus-motak adieraziko zaizkizu.

Baldintzazko lehena

Honela eratzen da: **if** + *Present Simple* baldintzazko perpausean eta *Future Simple* aldia ondorioan. Baldintza betetzen bada, zer gertatuko den adierazten du.

Ez dio axola zer hurrenkeratan kokatzen diren bi zatiak, baina baldintza badoa lehenik, bi perpausen artean koma idatziko dugu.

> ***If** you **give** me a hand, I **will be** really grateful.*
> (Laguntzen badidazu, eskerturik egongo natzaizu.)

Future Simple erabiltzeaz gain, modalekin edo aginterarekin ere adieraz dezakegu ondorioa.

> *You **can't go out** if you **don't finish** your homework.*
> (Ezin zara irten etxeko lanak bukatzen ez badituzu.)
>
> ***If** you **search** for information on the Internet, **use** Google.*
> (Informazio bila bazabiltza Interneten, erabil ezazu Google.)

Baldintza ez betetzearen ondorioz, zerbait ez dela gertatuko adierazi nahi badugu, hainbat aukera dugu: baldintza-perpausari **unless** juntagailuarekin eman hasiera ("ez ba..." / "ezean"), **if not** erabiltzearen pareko dena, edo *Present Simple* aldian doan aditza ezeztatu

> ***Unless** you **make** a daily backup copy, you **will lose** all the information.*
> ***If** you **don't make** a daily backup copy, you **will lose** all the information.*
> (Segurtasun kopiarik egiten ez baduzu egunero, informazio guztia galduko duzu.)

Gogoan izan **unless** nahiko maiz erabiltzen dela baldintzazko lehenean, baina ez horrenbeste bigarrenean, eta inoiz ez hirugarrenean.

Baldintzazko bigarrena

Honela eratzen da: **if** + *Past Simple* baldintzan eta **would** + aditzoina ondorioan. Orainaldiarekin loturiko baldintza hipotetikoak adierazten ditu, hau da, gertatzeko aukera gutxi dutenak. Euskaraz baldintzazko perpauseko aditza baurrizkiarekin doa eta ondoriozkoa alegiazko "ke"dun adizkiekin.

> *He **wouldn't buy** a new computer **unless** he **had** the money.* (Ez luke ordenagailu berririk erosiko dirurik ez balu.)

Menpeko perpauseko aditza **to be** denean, **were** erabiltzen da singularreko nola pluraleko pertsona guztiekin.

***If** that camera **weren't** so expensive, I **would buy** it.*
(Kamera hori hain garestia ez balitz, erosi egingo nuke.)

Eta aholkuak ematen ari garenean, **if I were** formula erabiltzen da.

***If I were** you, I **wouldn't download** this file.*
(Nik zure tokian, ez nuke artxibo hori jaitsiko.)

Would erabili ordez **could** eta **might** modalak ere erabil ditzakegu, baina hauek biek hipotesia burutzeko aukera are urriagoa dela adierazten dute. Euskaraz "agian, beharbada, gerta liteke" eta antzekoak erabil ditzakegu itzultzerakoan.

***If** she **drove** a virtual car, it **could** encourage her to buy a real one.* (Kotxe birtuala gidatuko balu, horrek agian benetakoa erostera animatuko luke.)

Baldintzazko hirugarrena

Honela eratzen da: **if** + *Past Perfect* baldintzan eta **would have** + partizipioa ondorioan. Kasu honetan baldintza erabat ezinezkoa da, iraganari lotua baitago, beraz, hipotesia burutu ezina da.

*Sarah **would have learnt** French **if** she **had gone** to the lessons.* (Sarahk frantsesa ikasiko zukeen, klaseetara joan izan balitz.)

Would have + partizipioa erabili ordez, **could have** eta **might have** + partizipioa hautatuz ere osatzen da perpaus nagusia.

***If** Jack **had come**, we **could** / **might have eaten** earlier.*
(Jack etorri izan balitz, agian lehenago jango genukeen.)

➡ Denborazko perpausak

Etorkizunarekin lotuta daudenak baldintzazko lehenak bezala eratzen dira: *Present Simple* aldia menpeko perpausean eta *Future Simple* perpaus nagusian. Aldatzen direnak juntagailuak dira, eta kasu honetan **as soon as**, **by the time**, **the moment (that)**, **when**, etab. erabiltzen dira.

*She'**ll buy** a car **as soon as** she **passes** her driving test.*
(Kotxea erosiko du gidatzeko azterketa gainditu bezain laster.)

***When** I **get** home, I'**ll be able to** help you in the kitchen.*
(Etxera iristen naizenean, sukaldean lagundu ahal izango dizut.)

UNIT 8 *Film*

BOZ PASIBOA		
Tense	**Active**	**Passive**
Present Simple	*Brad Pitt **plays** many roles.*	*Many roles **are played** by Brad Pitt.*
Present Continuous	*Brad Pitt **is playing** many roles.*	*Many roles **are being played** by Brad Pitt.*
Past Simple	*Brad Pitt **played** many roles.*	*Many roles **were played** by Brad Pitt.*
Past Continuous	*Brad Pitt **was playing** many roles.*	*Many roles **were being played** by Brad Pitt.*
Present Perfect Simple	*Brad Pitt **has played** many roles.*	*Many roles **have been played** by Brad Pitt.*
Past Perfect Simple	*Brad Pitt **had played** many roles.*	*Many roles **had been played** by Brad Pitt.*
Future Simple	*Brad Pitt **will play** many roles.*	*Many roles **will be played** by Brad Pitt.*
Modals	*Brad Pitt **should play** many roles.*	*Many roles **should be played** by Brad Pitt.*
Modal Perfects	*Brad Pitt **must have played** many roles.*	*Many roles **must have been played** by Brad Pitt.*
have to	*Brad Pitt **has to play** many roles.*	*Many roles **have to be played** by Brad Pitt.*
be going to	*Brad Pitt **is going to play** many roles.*	*Many roles **are going to be played** by Brad Pitt.*

Egitura

Baiezkoa: to be aditzarekin + aditz nagusiaren partizipioarekin eratzen da.

*An astronaut **was sent** into space.*
(Astronauta bat bidali zuten espaziora.)

Ezezkoa: to be aditzari **not** (edo **n't**) gehitzea besterik ez da. Perpausa aditz modalarekin, *Future Simple* aldiarekin edo adizki elkartu batekin osatuta badago, aditz modala, **will** edo **have** / **has** ezeztatuko ditugu.

*An astronaut **wasn't sent** into space.*
(Astronautarik ez zuten bidali espaziora.)

Galderazkoa: to be + subjektua + partizipioa dugu ordena. Perpausa aditz modalarekin, *Future Simple* aldiarekin edo adizki elkartu batekin osatua badago, perpaus pasiboa modalarekin edo laguntzailearekin hasiko dugu, aktiboan bezalaxe.

***Was** an astronaut **sent** into space?*
(Astronautarik bidali al zuten espaziora?)

Nola bilakatu perpaus aktibo bat pasibo

Perpaus aktibo bat pasibo nola bilakatzen den ikasi aurretik, jakin beharra dago boz pasiboa askoz arruntagoa dela ingelesez euskaraz baino, horregatik, itzultzeko garaian aditza boz aktiboan uztea hobesten da, forma inpertsonalak hautatuz edo hitzen hurrenkera aldatuz.

- Perpaus aktiboan aditz nagusiak zuen denboran jarriko dugu **to be** aditza, eta aditz nagusia, berriz, partizipioan.

  *They **sold** their house last week.*
  *Their house **was sold** last week.*
  (Joan den astean saldu zen haien etxea.)

  Aditz modalak eta **be going to** egitura ez dira aldatzen, hauei darraien aditza baita pasiboan jartzen dena.

  *The technician **must operate** the camera.*
  *The camera **must be operated** by the technician.*
  (Kamera teknikariak erabili behar du.)

  *They **are going to show** a new film at this cinema.*
  *A new film **is going to be shown** at this cinema.*
  (Pelikula berri bat bota behar dute zinema honetan.)

- Perpaus aktiboan aditzaren ondotik doan lehen osagarria bihurtuko da subjektu, dela osagarri zuzena dela zeharkakoa. Hain zuzen ere, zeharkakoa aurreratzea arruntagoa da eta kasik ingelesak bakarrik duen ezaugarria, euskaraz ezin baita horrelako pasiborik osatu.

  *The actor explained **the plot**.*
  ***The plot** was explained by the actor.*
  (Argumentua azaldu zien antzezleak.)

  Zeharkako osagarria izenordain objektua bada, izenordain subjektu formara pasatuko dugu.

  *The magazine's photographers will photograph **them** at their wedding.*
  ***They** will be photographed at their wedding by the magazine's photographers.*
  (Argazkiak aterako dizkiete aldizkariko argazkilariek haien ezkontzan.)

- Subjektua esaldiaren bukaerara pasatuko dugu, aurretik **by** preposizioa daramala. Eta gogoan izan, pertsona-izenordaina bada, dagokion izenordain objektuaz trukatu behar dugula.

  ***This film critic** has written the article.*
  *The article has been written **by this film critic**.*
  (Artikulua zinema-kritikari honek idatzi du.)

Erabilerak

- Ekintza burutzen duen subjektua baino garrantzitsuagoa ekintza bera dela nabarmendu nahi denean erabiltzen da, subjektua garrantzi gutxikoa delako, ezezaguna delako edo aipatu nahi ez delako. Gainera, era honetara, **somebody**, **nobody** eta antzeko subjektuak dituzten perpausak saihes ditzakegu.

  ***Somebody** added subtitles to the film.*
  *Subtitles **were added** to the film.*
  (Azpitituluak gehitu zizkioten pelikulari.)

➡ Aditz arazleak: have / get + something + done

Have / **get** + osagarri zuzena + iraganeko partizipioa, norbaiti eskatutako ekintzak adierazteko erabiltzen da.

*I'm going to **have** / **get** my hair **cut**.*
(Ilea moztera noa.) [beste pertsona batek egingo du eta ez nik]

Egitura hau aditz-denbora gehienekin erabil daiteke.

*Ann **had** her computer **repaired**.*
(Annek ordenagailua konponarazi zuen.)

*The band **will have** their instruments **repaired** soon.*
(Taldeak laster izango ditu musika-tresnak konponduta.)

Egitura honek esanahi pasiboa du, erdian doan osagarri zuzenak partizipioan doan aditzaren bitartez adierazitako ekintza jasotzen baitu. Euskaratzerakoan, ordea, boz aktiboa erabiliko dugu.

*My watch broke, so I **had** it **repaired** yesterday.*
(Erlojua hondatu zitzaidanez, atzo konponarazi nuen.)

*You should **have** your eyes **checked** every year.*
(Urtero egin behar zenuke begietako azterketa.)

*The writer **got** his book **published** (by a publisher).*
(Idazleak argitaratu zuen bere liburua.) [argitaletxe batek egin zuen]

Have nahiz **got** bereizgabe erabiltzen badira ere, **get** informalagoa da eta arruntagoa ere bai ingeles mintzatuan.

*I **got** my house **painted** last week.*
(Etxea pintatu nuen / zidaten joan den astean.)

➡ Preposizioz jarraituriko adjektiboak

To be aditzaren ondoren maiz aurkituko ditugu jarraian preposizioa + izena, izenordaina edo gerundioa daramatzaten adjektiboak. Atributu funtzioa betetzen dute.

*I was **thrilled by** the last Harry Potter film.*
(Izugarri gustatu zitzaidan Harry Potterren azken filma.)

*My mother is **worried about** me.*
(Ama kezkatua dago nirekin.)

*We are **tired of** working.*
(Lan egiten nekatuta gaude.)

Ikus 28. orrian dagoen zerrenda, adibide gehiago aztertu ahal izateko.

UNIT 9 *The News*

ZEHAR ESTILOA		
Tense	**Direct Speech**	**Reported Speech**
Present Simple	*"He **works** as an editor."*	*She said that he **worked** as an editor.*
Present Continuous	*"He **is working** as an editor."*	*She said that he **was working** as an editor.*
Past Simple	*"He **worked** as an editor."*	*She said that he **had worked** as an editor.*
Past Continuous	*"He **was working** as an editor."*	*She said that he **had been working** as an editor.*
Present Perfect Simple	*"He **has worked** as an editor."*	*She said that he **had worked** as an editor.*
Present Perfect Continuous	*"He **has been working** as an editor."*	*She said that he **had been working** as an editor.*
Past Perfect Simple	*"He **had worked** as an editor."*	*She said that he **had worked** as an editor.*
Past Perfect Continuous	*"He **had been working** as an editor."*	*She said that he **had been working** as an editor.*
Future Simple	*"He **will work** as an editor."*	*She said that he **would work** as an editor.*

ALDAKETAK MODALETAN	
Direct Speech	**Reported Speech**
can	*could*
may	*might*
must / have to	*must / had to*
will	*would*

ALDAKETAK ZENBAIT HITZ ETA ESAMOLDETAN	
Direct Speech	**Reported Speech**
now	*then*
today	*that day*
tonight	*that night*
yesterday	*the previous day / the day before*
last week	*the previous week / the week before*
a month ago	*the previous month / the month before*
tomorrow	*the following day / the day after / the next day*
next week	*the following week / the week after*
here	*there*
this	*that*
these	*those*

Norbaitek esandakoa kontatzeko erabiltzen da, baina pertsona horrek erabilitako hitz berberak aipatu gabe.

Reported statements

Norbaitek esan berri duena orainaldian konta dezakegu. Horretarako nahikoa da komatxoak kentzea, izenordain subjektua eta aditzaren pertsona aldatzea.

"I am tired." — ***He says** that **he is** tired.*
(Nekatuta dagoela dio.)

Ohikoena, dena dela, zehar estiloko menpeko perpausaren aurrean doan aditza (normalean **say** edo **tell**) lehenaldian jartzea da. Eta orduan menpeko perpauseko aditzak atzera jauzia egingo du (*Present Simple* aldia *Past Simple* aldira pasatuko da, hau *Past Perfect* deiturikora, etab.).

Komatxoak kentzeaz gain eta aditz-denborak aldatzeaz gain, ordea, beste aldaketa batzuk ere beharrezkoak dira; horrela bada, izenordainek eta denbora- nola leku-preposizioek ere aldaketak jasango dituzte.

Menpeko perpausa **that** juntagailuaz hasten da, baina ingeles mintzatuan isildu egiten da.

"I'll start the investigation today," the detective said.
*The detective **said** (that) he **would start** the investigation **that day**.*
(Detektibeak esan zuen ikerketa egun horretan hasiko zuela.)

Perpausak egia orokorra adierazten duenean, aditz-denborak ez du inolako aldaketarik jasaten.

"Crime is punished by the law," she said.
*She **said** that crime **is punished** by the law.*
(Delinkuentzia legeak zigortzen duela esan zuen hark.)

Zehar estiloari sarrera ematen dioten aditz arruntenak **say** eta **tell** dira. Azkenak **to** preposiziorik gabeko zeharkako osagarria darama beti; lehenak, berriz, **say** aditzak, alegia, aukeran du osagarria eraman ala ez, baina badaraman kasuetan, preposizio horrekin joan beharra du.

"The police caught the robber," he said.
*He **told us** that the police had caught the robber.*
*He **said** that the police had caught the robber.*
*He **said to us** that the police had caught the robber.*
(Poliziak lapurra harrapatu zuela esan zigun hark.)

Reported questions

Ingelesez bi motatako galderak daude:

- **Yes / No questions** motakoak, hots, "bai" edo "ez" batekin erantzun daitezkeenak. Era honetako galderak zehar estilora aldatzeko **ask** aditza eta ondoren **if** edo **whether** partikula erabiliko dugu. Orain galderak perpaus arrunt izatera pasa direnez, ez dago subjektu-aditz arteko hurrenkera-aldaketarik, ez dago galdera-ikurrik, ez eta komatxorik.

  "Did the contestant win a lot of money?" Matt asked.
  *Matt **asked if / whether** the contestant **had won** a lot of money.*
  (Lehiakideak diru asko irabazi al zuen galdetu zuen Mattek.)

- **Wh-questions** motakoak ezin dira "bai" edo "ez" batekin erantzun. Galdetzaile batekin hasten direnak ditugu hauek (**what**, **who**, **where**, **when**, **why**, **whose**, **how**, **how long**, etab.), eta zehar estilora pasatzerakoan, galdetzaile hori **if** edo **whether** partikulen tokian kokatuko dugu. Jarraian subjektua eta aditza joango dira eta galdera-ikurra nahiz komatxoak alde batera utziko ditugu.

  "What is the name of the new show?" Sue asked.
  *Sue asked **what** the name of the new show **was**.*
  (Programa berriak zer izen zuen galdetu zuen Suek.)

Reported orders

Aginduak zehar estilora pasatzeko, aginteraren ordez infinitiboa erabiliko dugu. Baina infinitiboaren aurretik, agindua adierazten duen aditz bat erabiliko dugu, esate baterako, **tell** eta **order**, atzean zeharkako osagarria daramala. Badira beste aditz batzuk ere, aginduak adierazi ez arren, egitura hau jarraitzen dutenak: **ask** eta **beg** aditzak eskaerak adierazteko, **warn** norbaiti ohartarazpen bat egiteko, **advise** aholkuak emateko edo **invite** gonbitea luzatzeko.

"Stop driving so fast."
*My mother **ordered me to stop** driving so fast.*
(Nire amak hain azkar ez gidatzeko agindu zidan.)

Ezezko perpaus bat dugunean, **not** kokatuko dugu **to** partikularen aurrean.

"Don't tell anybody."
*He **begged me not to tell** anybody.*
(Inori ez kontatzeko erregutu zidan.)

Reported suggestions

Aurrena subjektua eta **suggest** aditza jarriko ditugu eta ondoren pertsona horrek iradokitakoa adieraziko dugu. Iradokizunak bi eratara pasatzen dira zehar estilora.

- **That** partikularekin hasten den perpaus bat osagarri zuzentzat erabiliz, bere subjektua eta aditza oinarrizko forman dituena. **Demand** aditzak ere, agindua adierazten duenak, egitura hau jarraitzen du.

  "Let's watch the new TV show," Tom suggested.
  *Tom **suggested that we watch** the new TV show.*
  (Telebistako programa berria ikus genezan iradoki zuen Tomek.)

- Gerundioa erabiliz, subjekturik zehaztu gabe.

  "Let's phone the police immediately!"
  *She **suggested phoning** the police immediately.*
  (Poliziari berehala dei geniezaion iradoki zuen.)

➡ Reporting Verbs

Zehar estiloari sarrera emateko gehien erabiltzen diren aditzak **say**, **tell** eta **ask** dira, hauek mezua helarazten digute soilik, informazio gehiago gaineratu barik. Baina hiztunaren intentzioa edo erabilitako doinua ere azaldu nahi baditugu, aipatutakoez gain **reporting verbs** ugari erabil ditzakegu:

- Baieztapenetarako: **admit**, **announce**, **answer**, **apologise**, **boast**, **claim**, **complain**, **declare**, **explain**, **inform**, **insist**, **mention**, **offer**, **remind**, **reply**, **state**
- Galderetarako: **enquire**, **request**, **want to know**, **wonder**
- Aginduetarako: **ask**, **demand**, **order**, **shout**, **warn**
- Erreguetarako: **beg**
- Iradokizunetarako: **advise**, **invite**, **recommend**, **suggest**

"I will be home late."
*She **reminded** me that she would be home late.*
(Etxera berandu etorriko zela gogorarazi zidan.)

"Did you arrive on time?"
*Dave **wanted to know** if I had arrived on time.*
(Garaiz heldu ote nintzen jakin nahi zuen Davek.)

"Be careful!"
*He **shouted** (at me) to be careful.*
(Kontuz ibiltzeko oihu egin zidan.)

"You should do your homework."
*The teacher **advised** me to do my homework.*
(Irakasleak etxeko lanak egin nitzan aholkatu zidan.)

➡ Izenak osatzeko atzizkiak

Dakizun bezala, atzizkiak hitz batzuei gehitzen dizkiegun bukaerak dira, horrela, beste hitz berri batzuk sortzeko.

Aditzetatik izenak osatzeko atzizkien artean erabilienak **ment**, **tion / sion** eta **er / or** ditugu.

Honatx adibide batzuk:

agree (hitzartu)	*agree**ment*** (hitzarmen)
invite (gonbidatu)	*invita**tion*** (gonbidapen)
conclude (ondorioztatu)	*conclu**sion*** (ondorio)
run (korrika egin)	*runn**er*** (korrikalari)
sail (nabigatu)	*sail**or*** (nabigatzaile)

*They finally reached an **agreement**.*
(Azkenean hitzarmena lortu zuten.)

PHRASAL VERBS

aim at: bideratuta egon, (zerbait) nahi izan
break down: matxuratu, hondatu
break into: -n sartu; -n lapurretara sartu
break up: banandu, hautsi (harremana)
call on: ikustera / bisitara joan
carry on: jarraitu, aurrera eraman
check in: (hotelean) izena eman; (aireportuan) fakturatu
check out: (hotela) ordaindu eta utzi
clean up: garbitu, txukundu
close off: (gune bat sokaz) inguratu
come back: itzuli
come on: tira! goazen!
come over: etorri, pasatu, azaldu
cut down: (zuhaitzak) moztu
cut in: eten
cut off: (hornidura) moztu; (elkarrizketa) eten
cut out: murriztu, gutxitu
deal with: -ekin tratatu; (arazoa) konpondu
end up: bukatu
feel like: gogoa izan
fill in: (inprimakia, agiria) bete
find out: jakin, berri izan
get across: komunikatu, ulertarazi; igaro, zeharkatu
get around: lekualdatu, han-hemenka ibili
get away: ihes egin
get back: itzuli, bueltatu; berreskuratu
get by: (hizkuntzarekin) moldatu; konpondu
get in: sartu
get into: sartu; interesa erakutsi / izan
get off: (autobusetik, trenetik) jaitsi
get rid of: libratu, gainetik / bistatik kendu
get through: komunikatu, hitz egitea lortu
get to: -ra heldu
get together: elkartu
give away: argitu; salatu
give back: itzuli, atzera eman
give up: utzi, uko egin
go down: jaitsi, gutxitu, beheratu
go off: joan, alde egin; (alarmak) jo
go on: jarraitu
go out: atera
grow up: hezi, hazi
hang out: denborapasa egon
identify with: -ekin lotu, erlazionatu
keep on: jarraitu
keep out: ez utzi sartzen
leave out: ez aipatu, alde batera utzi
let in: sartzen utzi; pasarazi
log into: (web orri batean) sartu
look after: (norbait) zaindu
look around: gainbegirada bota, (norberaren) ingurura begiratu)
look at: begiratu, behatu
look for: bilatu
look forward to: irrikatu, desira izan
look into: ikertu
look out: kontuz ibili
look up: (informazioa) aurkitu; bisitara joan
make into: bilakatu
make up: asmatu; berradiskidetu, bakeak egin
make up for: (galdutakoa) ordaindu
pass down: transmititu, jakinarazi
pass on: (mezua) eman, bidali, pasa
pay back: (dirua) itzuli; mendekatu
pay for: ordaindu
pick out: aukeratu
pick up: altxatu, lurretik jaso; eskuratu
plug in: entxufatu, konektatu
pull up: jaso, igo
put away: jaso, bere tokian jarri
put back: berriro bere lekuan utzi
put off: gogogabetu, adorea galdu
put on: jantzi
put out: atera, kaleratu
ring up: telefonoz deitu
run away: ihes egin
run out of: -ik gabe gelditu
run over: (kotxeak) harrapatu
set off: abiatu
set up: zutik jarri, eratu
shake out: astindu
show up: leku batean agertu / aurkeztu
sit down: eseri
slip away: (denbora, aukera) joan, ihes egin
slow down: makaldu, polikiago joan
stand up: zutitu
switch off: itzali; deskonektatu, arreta galdu
switch on: piztu
take away: kendu, (jatekoa) eraman
take back: (esandakoa) zuzendu, atzera egin
take off: (hegazkina) aireratu; (arropa) kendu
take out: atera
take part in: -n parte hartu
take up: egiten / jokatzen hasi, -i ekin; (denbora) hartu / eraman
tear down: eraitsi, behera bota

WORDLIST

The Wordlist includes vocabulary from the Student's Book and the Vocabulary Builder (Workbook).

UNIT 1

accessories /ək'sesəriz/ osagarriak
adventurous /əd'ventʃərəs/ abenturazale, ausart
although /ɔ:l'ðəʊ/ nahiz eta
arrogant /'ærəgənt/ harroputz, harro
attractive /ə'træktɪv/ erakargarri
average /'ævərɪdʒ/ batezbesteko
blond(e) /blɒnd/ ilehori
calm /kɑ:m/ lasai
cheerful /'tʃɪəfl/ alai
confident /'kɒnfɪdənt/ norberarengan konfiantza duena
considerate /kən'sɪdərət/ adeitsu
curly /'kɜ:li/ kizkur
dark /dɑ:k/ beltzaran, ilun
dishonest /dɪs'ɒnɪst/ faltsu
disorganised /dɪs'ɔ:gənaɪzd/ zabar
downward /'daʊnwəd/ beherantz
energetic /enə'dʒetɪk/ kementsu, gogotsu, energiaz bete
fair /feə/ ilehori; bidezko
fat /fæt/ gizen
friendly /'frendli/ lagunkoi, atsegin
good-looking /gʊd'lʊkɪŋ/ eder
gorgeous /'gɔ:dʒəs/ oso eder; zoragarri
handwriting /'hændraɪtɪŋ/ idazkera
hard-working /hɑ:d'wɜ:kɪŋ/ langile
heavy /'hevi/ astun
height /haɪt/ garaiera, altuera
hint /hɪnt/ (hitz-erdika) adierazi
honest /'ɒnɪst/ zuzen, zintzo
immature /ɪmə'tjʊə/ heldugabe
impatient /ɪm'peɪʃənt/ pazientzia gutxiko
impolite /ɪmpə'laɪt/ gaizki hezitako
inconsiderate /ɪnkən'sɪdərət/ begirunerik gabeko
independent /ɪndɪ'pendənt/ independente
informal /ɪn'fɔ:ml/ informal
large /lɑ:dʒ/ handi
light brown /laɪt 'braʊn/ marroi argi
long /lɒŋ/ luze
mature /mə'tʃʊə/ heldu
moody /'mu:di/ umore aldakorreko
organised /'ɔ:gənaɪzd/ txukun
outgoing /'aʊtgəʊɪŋ/ ireki, lagunarteko
over-sensitive /əʊvə'sensɪtɪv/ oso sentibera
overall appearance /əʊvərɔ:l ə'pɪərəns/ itxura orokor
petite /pə'ti:t/ (emakume) txiki
polite /pə'laɪt/ ondo hezitako
pretty /'prɪti/ polit, eder
reliable /rɪ'laɪəbl/ fidagarri
sceptical /'skeptɪkl/ eszeptiko
self-confidence /self'kɒnfɪdəns/ norberarenganako konfiantza
sensible /'sensəbl/ zuhur, zentzudun
short /ʃɔ:t/ txiki (ez altu); motz
shoulder-length /'ʃəʊldəleŋθ/ sorbaldaraino
shy /ʃaɪ/ lotsati
signature /'sɪgnətʃə/ sinadura
significant /sɪg'nɪfɪkənt/ esanguratsu, garrantzitsu
slanted /'slɑ:ntɪd/ oker
slim /slɪm/ argal; lirain
sociable /'səʊʃəbl/ lagunarteko
spiky /'spaɪki/ (ilea) tente
straight /streɪt/ (ilea) liso
stubborn /'stʌbən/ burugogor, temati
successful /sək'sesfl/ arrakastatsu (*be* ~: arrakasta izan)
tall /tɔ:l/ handi, altu
thin /θɪn/ argal
unattractive /ʌnə'træktɪv/ erakargarritasun gutxiko
unfriendly /ʌn'frendli/ ezatsegin
unreliable /ʌnrɪ'laɪəbl/ fidagarritasun gutxiko
unsociable /ʌn'səʊʃəbl/ tratagaitz
upward /'ʌpwəd/ gorantz
weight /weɪt/ pisu
well-built /wel'bɪlt/ sendo, irmo

Talking About People

What does he look like? /wɒt dʌz hi: 'lʊk laɪk/	Nolako itxura du?
What kind of person is she? /wɒt kaɪnd əv 'pɔ:sn ɪz ʃi:/	Zein eratako pertsona da?
What's he like? /wɒts hi: 'laɪk/	Nolakoa da?

Describing People

He is ... /'hi: ɪz/	...da.
She has got ... /ʃi: həz 'gɒt/	...du.
I think he's ... /aɪ θɪŋk 'hi:z/	Uste dut ...-(e)la.
I can see she ... /aɪ kən 'si: ʃi:/	Dirudienez, ...
He probably likes / doesn't like ... /hi: prɒbəbli 'laɪks / 'dʌznt laɪk/	Seguruenik, ... gustatuko zaio/ ez zaio gustatuko.

UNIT 2

air travel /'eə trævl/ hegazkin-bidaia

ancient /'eɪnʃənt/ antzinako (~ *site*: leku historiko)

backpack /'bækpæk/ motxila, bizkar-zorro

backpacking holiday /'bækpækɪŋ hɒlədeɪ/opor motxiladunak

bed and breakfast /bed ænd 'brekfəst/ ostatu (ostatua eta gosaria)

binoculars /bɪ'nɒkjələz/ prismatikoak

boat trip /'bəʊt trɪp/ itsasontzi-txango

bring to light /brɪŋ tə 'laɪt/ argitara atera

business trip /'bɪznəs trɪp/ laneko bidaia

buy postcards and souvenirs /baɪ pəʊstkɑ:dz ænd sʊvə'nɪəz/ postalak eta oroigarriak erosi

camera /'kæmərə/ kamera

camping holiday /'kæmpɪŋ hɒlədeɪ/ kanpinarekin joan oporretara

campsite /'kæmpsaɪt/ kanpaleku

caravan /'kærəvæn/ karabana

charge (n) /tʃɑ:dʒ/ kargu, akusazio

charge (v) /tʃɑ:dʒ/ akusatu, salatu

check in /tʃek 'ɪn/ (hotelean) izena eman

check out /tʃek 'aʊt/ (hotela) ordaindu eta utzi

damage /'dæmɪdʒ/ kalte

day trip /'deɪ trɪp/ eguneko txango

do sport /du: 'spɔ:t/ kirola egin

eat at local restaurants /i:t ət ləʊkl 'restrɒnts/ inguruko jatetxeetan jan

fine /faɪn/ isuna jarri

first-aid kit /fɜ:st'eɪd kɪt/ lehen sorospenerako botikin

forbidden /fə'bɪdən/ debekatuta

get to /'get tu:/ -ra heldu, iritsi

go camping /gəʊ 'kæmpɪŋ/ kanpinarekin joan

go hiking /gəʊ 'haɪkɪŋ/ ibilaldi bat egitera joan

go out /gəʊ 'aʊt/ irten

go shopping /gəʊ 'ʃɒpɪŋ/ erosketetara joan

go sightseeing /gəʊ 'saɪtsi:ɪŋ/ turismoa egin

hiking boots /'haɪkɪŋ bu:ts/ txango-botak

jacket /'dʒækɪt/ jaka, txaketa

jail /dʒeɪl/ kartzela

just /dʒʌst/ bakarrik, soilik

licensed /'laɪsnst/ baimendun

lucky /'lʌki/ zorioneko

meet new people /mi:t nju: 'pi:pl/ jende berria ezagutu

money belt /'mʌni belt/ gerriko poltsa

notice /'nəʊtɪs/ ohar

path /pɑ:θ/ bide-zidor

pocketknife /'pɒkɪtnaɪf/ labana

raincoat /'reɪnkəʊt/ euritako, kapusai

resort /rɪ'zɔ:t/ oporleku, turismo-gune

sandals /'sændlz/ sandaliak

school trip /'sku:l trɪp/ eskola-bidaia

seaside holiday /'si:saɪd hɒlədeɪ/ oporrak kostaldean

set off /set 'ɒf/ abiatu

set up /set 'ʌp/ zutik jarri, eratu

shopping trip /'ʃɒpɪŋ trɪp/ erosketa-bidaia

sightseeing holiday /'saɪtsi:ɪŋ hɒlədeɪ/ oporraldi turistiko

sign /saɪn/ kartel

skiing holiday /'ski:ɪŋ hɒlədeɪ/ eskiatzera joan oporretan

skis /ski:z/ eskiak

sleeping bag /'sli:pɪŋ bæg/ lo-zaku

snorkel /'snɔ:kl/ buzeatzeko hodi, esnorkel

spokesman /'spəʊksmən/ bozeramale

state /steɪt/ adierazi, azaldu

suitcase /'su:tkeɪs/ maleta

sunbathe /'sʌnbeɪð/ eguzkitan egon

sunglasses /'sʌnglɑ:sɪz/ eguzkitako betaurrekoak

sunscreen /'sʌnskri:n/ eguzkitako krema

surfboard /'sɜ:fbɔ:d/ surf-taula

sweatshirt /'swetʃɜ:t/ kirol-jertse

swimsuit /'swɪmsu:t/ bainujantzi

take off /teɪk 'ɒf/ (hegazkina) aireratu

take photos /teɪk 'fəʊtəʊz/ argazkiak atera

tent /tent/ kanpin-denda

theft /θeft/ lapurreta

torch /tɔ:tʃ/ linterna

travel agent /'trævl eɪdʒənt/ bidai agente

travel arrangements /'trævl əreɪndʒments/ bidaia prestatzeko lanak

travel documents /'trævl dɒkjʊmənts/ bidai agiriak

travel expenses /'trævl ɪkspensɪz/ bidai gastuak

travel guide /'trævl gaɪd/ turismo-gidari

visit museums /vɪzɪt mju:'zi:emz/ museoak ikusi

warn /wɔ:n/ ohartarazi

water bottle /'wɔ:tə bɒtl/ ur botila

wetsuit /'wetsu:t/ urpeko jantzi

youth hostel /'ju:θ hɒstl/ gazte-aterpetxe

Asking for Information

Can you help me, please? /kən ju: 'help mi:, pli:z/	Laguntzerik baduzu, mesedez?
What time does the train / plane arrive at ...? /wɒt taɪm dʌz ðə 'treɪn / 'pleɪn əraɪv æt/	Zein ordutan iristen da trena / hegazkina...?
Is there a direct train to ...? /ɪz ðeə ə dərekt 'treɪn tə/	Zuzeneko trenik ba al dago ... -rako?
Where can I get a ticket? /weə kən aɪ get ə 'tɪkɪt/	Non eros dezaket txartela?
My flight is / leaves at ... /maɪ 'flaɪt ɪz / li:vz ət/	Nire hegaldia -e(t)an da.

There's a train / bus in ... minutes. /ðeəz ə 'treɪn / 'bʌs ɪn … mɪnɪts/	... minutu barru aterako da trena / autobusa.

Talking About Holidays

When did you go on holiday? /wen dɪd ju: gəʊ ɒn 'hɒlədeɪ/	Noiz joan zinen oporretara?
Who did you go with? /hu: dɪd ju: 'gəʊ wɪð/	Norekin joan zinen?
What type of holiday did you go on? /wɒt taɪp əv 'hɒlədeɪ dɪd ju: gəʊ ɒn/	Nolako oporrak izan dituzu?
What was the weather like? /wɒt wəz ðə 'weðə laɪk/	Nolako eguraldia egin zuen?
What type of accommodation did you stay in? /wɒt taɪp əv əkɒmə'deɪʃn dɪd ju: steɪ ɪn/	Nolako ostatua hartu zenuen?
What did you do there? /wɒt dɪd ju: 'du: ðeə/	Zer egin zenuen bertan?
What happened while / when you were at ...? /wɒt 'hæpənd waɪl / wen ju: wə ət/	Zer gertatu zen ...-n zeundela?
Did you have fun? /dɪd ju: hæv 'fʌn/	Ondo pasa al zenuen?

UNIT 3

advert /'ædvɜ:t/ iragarki

athletics /æθ'letɪks/ atletismo

average /'ævərɪdʒ/ batezbesteko

avoid /ə'vɔɪd/ saihestu

basket /'bɑ:skɪt/ saski

basketball /'bɑ:skɪtbɔ:l/ saskibaloi; saskibaloiko baloi

beat /bi:t/ irabazi, garaitu

break a record /breɪk ə 'rekɔ:d/ marka hautsi

challenge /'tʃælənʤ/ erronka, desafio

chances are ... /tʃɑ:nsəz ɑ:/ ziurrena da...

climb /klaɪm/ eskalatu

competitive sport /kəm'petətɪv spɔ:rt/ norgehiagokako kirol

court /kɔ:t/ pista

cycling /'saɪklɪŋ/ txirrindularitza

daredevil /'deədevl/ ausart / beldurgarri

dedicated /'dedɪkeɪtɪd/ lotu, eman

determined /dɪ'tɜ:mɪnd/ irmo, zirt edo zarteko

disciplined /'dɪsəplɪnd/ diziplinatu

draw /drɔ:/ berdinketa

enter a competition /entə ə kɒmpə'tɪʃn/ txapelketan parte hartu

extreme sport /ɪk'stri:m spɔ:t/ abentura-kirol

finish line /'fɪnɪʃ laɪn/ helmuga

fishing /'fɪʃɪŋ/ arrantza

flip backwards /flɪp 'bækwədz/ atzeraka txilinbuelta egin

football /'fʊtbɔ:l/ futbol

goal /gəʊl/ helburu; gol

gymnastics /ʤɪm'næstɪks/ gimnastika

helmet /'helmɪt/ kasko

hiking /'haɪkɪŋ/ oinezko txango, ibilaldi

hit /hɪt/ kolpatu

hockey /'hɒki/ hockey

improve /ɪm'pru:v/ hobetu

injury /'ɪnʤəri/ zauri, lesio

judo /'ʤu:dəʊ/ judo

karate /kə'rɑ:ti/ karate

keep fit /ki:p 'fɪt/ sasoian egon

kick (n) /kɪk/ ostiko

kick (v) /kɪk/ ostiko bat eman; (gola) sartu

mountain climbing /'maʊntən klaɪmɪŋ/ mendizaletasun, mendian ibiltze

nerve /nɜ:v/ adore, kemen

net /net/ sare

outdoor sport /'aʊtdɔ: spɔ:t/ kanpoko kirol

rollerblades /'rəʊləbleɪdz/ gurpilak lerroan dituzten irristailuak / patinak

